

LB_2 Fisika Programazio Laburpena

Irakaslea	Yolanda Reca Galdúroz	Maila	Batxilergo 2	Ikasturtea	2020/2021
------------------	-----------------------	--------------	--------------	-------------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Ikasgaia hautazkoa da, astero 4 ordukoa eta ikasleak bi taldetan daude.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

HELBURU OROKORRAK

Programazio didaktikoan dira.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

ÚNTATE DIDAKTIKOAK

1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa
Fisikarako sarrera	Elektromagnetismoa (jarraipena)	Optika
Eremu Grabitatorioa	Uhin-Higidura	Fisika Modernoa
Elektromagnetismoa		

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Ariketak ebazteko kalkulagailu zientifikoa ezinbestekoa da; optikaren ariketak egiteko erregela erabiliko ditugu.

Laborategian zenbait saio esperimental egingen dugu.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA ESTANDAR EBALUAGARRIAK

Programazio didaktikoan dira.

http://www.navarra.es/home_eu/Actualidad/BON/Boletines/2015/127/Anuncio-1/

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

Ebaluatzeko tresnak:

a) **Jarrera eta lana** : %10

Ikasleak jarrera egokia izan behar du ebaluazioa gainditzeko. Jarrera txarra izan badu ebaluazioan zehar, ebaluazioa suspendituko du

b) **Azterketak eta froga idatziak** : % 90.

Ebaluazioa gainditu ahal izateko, ezinbesteko baldintza da ikaslearen nota, azterketen atalekoa, 5 edo handiagoa izatea.

Ebaluazio batean bi azterketa egiten badira, lehenbizikoa partziala izanen da; eta bigarrena, globala. Azterketa partzialaren notaren kalifikazioak %30-eko pisua izanen du ; eta azterketa globalarena, % 70. Ebaluazioa gainditu ahal izateko, azterketa partzialaren notak 4 edo altuagoa izan behar du eta azterketa globalarena 5 edo altuagoa.

Klasera etortzea ezinbestekoa denez, ikasleren batek egindako huts egite kopurua emandako klaseen %20a edo handiagoa denean, ikasle horrek ebaluazio jarraitua izateko eskubidea galduko du eta, ondorioz, azterketa globala egin beharko du kurtso bukaeran.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK

Erantzun guztietan honako hauek balioetsiko dira: **Arrazoiketa zorrotza; ordena eta garbitasuna azalpenetan; kalkuluaren zehaztasuna eta zifra esanguratsuen zein unitateen adierazpen zuzena eta grafikoak eta marrazki eskematiko garbiak aurkeztea**

Kopiatzea: banakako lan batean, etxera bidalitako jardueretan eta abar, ikasle batek beste ikasle bati kopiatzen badio, lan horretan “0” kalifikazioa izango du. Modu berean, azterketa batean txuletak, mugikorra, liburua, edo beste edozein modu harrapatzen bazaio ikasleari, nahiz eta erabiltzen aritu ez, azterketa erretiratuko zaio eta froga horretan “0” kalifikazioa izango du.

Biribiltze irizpideak:

Ebaluazio bakoitzaren nota bat jarriko da. Ebaluazio bakoitzak aipatutako unitateak ditu barne. Ebaluazioa suspenditu ezker, errekupeazioak egingo dira eta ebaluazioko nota kalkulatu da berriro, aipatutako irizpideei jarraituz.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 0-5 tartean. Gainditzeko baldintza 5era iristea da.

0 - 1,4...	1 - GUTXIEGI
1,5 - 2,4...	2 - GUTXIEGI
2,5 - 3,9...	3 - GUTXIEGI
4,0 - 4,9...	4 - GUTXIEGI
5,0 - 5,4...	5 - NAHIKOA
5,5 - 6,4...	6 - ONGI
6,5 - 7,4...	7 - OSO ONGI
7,5 - 8,4...	8 - OSO ONGI
8,5 - 9,4...	9 - BIKAIN
9,5 - 10	10 - BIKAIN

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio bakoitzak bere errekupeazioa izanen du (hirugarrena izan ezik ; hirugarren ebaluazioa globalean errekupeatzen da). Errekupeazioaren nota, notaren % 70 –a izanen da (azterketen atalean) ; ebaluazioaren aurreko nota (azterketen atalekoa), berriz, % 30-a.

Derrigorrezkoa da errekupeazioa egitea, nahiz eta ebaluazioaren nota 4,0 - 4,99 izan; errekupeazio azterketara aurkezten ez bada, errekupeazio azterketaren kalifikazioa “0” izango da, eta kalifikazio horrekin kalkulatu da errekupeazioaren nota.

Ebaluazioko nota igo nahi duenak, errekupeazioko azterketara aurkeztu daiteke. Ebaluazioko azken nota, errekupeazio sistemaren bidez kalkulatu da (%30-%70)

Kurtso bukaeran, ikaslearen **NOTA FINALA** kalkulatzeko (azterketen atalekoa), ebaluazioen batezbesteko nota eginen zaie honako egoera hauetan dauden ikasleei:

- a) Ebaluazio guztiak gaitutuak dituzte.
- b) Ebaluazio bakar bat gaitutu gabea dute, nota 4 edo handiagoa izanik.

Gainontzeko ikasleek eta ebaluazioen batezbesteko nota “5” baino txikiagoa dutenek, azterketa finala egiteko aukera izanen dute:

- a) Ebaluazio bakar bat gaitutu gabe badute, ebaluazio hori bakarrik errekupeatuko dute
- b) Ebaluazio bat baino gehiago badute gaitutu gabe, kurtso osoaren edukiei buruzko azterketa eginen dute.

Salbuespena: hirugarren ebaluazioak ez duenez berreskurapen azterketa espezifikorik (globalean egiten baita), salbuespen hau egingo da:

Bi ebaluazio gaitutu gabe izanik: horietako bat 3. ebaluazioa da, eta beste ebaluazioan (1.a edo 2.a) 4 baino gehiago dauka. Kasu honetan, ikasleak aukeratu du: **edo** ikasturte osoko berreskurapena egitea, **edo** 3. ebaluazioko berreskurapena egitea bakarrik (ebaluazio hau gaitutuz gero kurtso osoko batez bestek gaitututa eman diezaiolako).

Froga globala osoa egin dutenentzako **ekaineko nota** honela kalkulatu da: azterketa globalaren nota: % 70a, kurtso osoan izandako batez besteko nota: % 30-a. Ikasgaia gaitutzeko 5,0

eskatuko da.

Azterketa finalean ere ez badute gutxienez 5-eko nota lortzen, **ez-ohiko froga** egin beharko dute (lehen irailakoa zena). Froga hau kurso osoaren edukiei buruzkoa izanen da. Ez-ohiko frogan, ikaslearen notak 5 edo handiago izan behar du, kursoa gainditu ahal izateko. Froga honen kalifikazioa frogan lorturiko nota izanen da.